

ERIBE

Se sitúa en lo alto de una loma en las faldas meridionales del monte Gorbea, alcanzando una altitud media sobre el nivel del mar de 640 metros. Las panorámicas que desde allí se disfrutan son extraordinarias alcanzando, gran parte del Valle de Cigoitia, una gran extensión de la Llanada oriental con la capital Vitoria-Gasteiz y como horizonte los montes de Vitoria.

Es en el año 1257 cuando aparece citada en documento con el nombre de Ereybe, pocos años después, en 1294, aparece citado como Hereydee.

Al Nordeste y a una distancia en línea recta de dos kilómetros apróximadamente, existió un pueblo llamado Menea que se nombra en el año 1839 en el libro de Fábrica de la iglesia de Eribe. De este poblado Menea solo resta el término de Altos de Menea, situando éstos, entre Eribe, Cestafe y Nafarrate.

ERIBE

Gorbeia mendiaren Hegoaldeko maldetako bizkargune baten gainean aurkitzen da, itsasmailatik batezbeste 640 m.ko altueran. Handik gozatzen diren ikusmirak zoragarriak dira, besarkatzen bait dira: Zigoitia Ibarreko zati handi bat, Ekialdeko lautadaren hedadura handi bat Gasteiz hiriburuarekin, atze-hondotzat Gasteizko mendiak direla.

1257an aurkitzen da agiri batean aipaturik Ereybe izenez; urte gutxi geroago, 1294ean, Hereydee bezala aipatzen da.

Ipar-ekialdera eta zuzenean handik kilometro-pare bat urrunago, Menea izeneko herri bat izan zen, 1839an Eribeko elizaren eraikuntzako liburuan aipatzen dena. Meneako auzogune honetatik Meneako Gainak izeneko mugapea besterik ez da gelditzen; horiek Eribe, Zestafe eta Nafarrete-ren artean aurkitzen ziren.

Escudete inserto en tapia.
Desvalido aspecto ofrece el caserío n.º 6.
Iglesia parroquial.

Horman sartutako armarritxoa.
6 zk. baserriak itxura malderra eskaintzen du.
Parrokia.

Como sucede en la gran mayoría de los pueblos de Alava, los edificios existentes actualmente representan un número muy reducido de a aquellos que existieron en siglos anteriores. Nosotros hemos visto desaparecer en el transcurso de 14 años, una casa, encontrándose en la actualidad dos semirruinosas y otra cerrada. Todo esto queda reflejado por las estadísticas. Así, en 1846 eran 21 vecinos con 75 almas los que lo poblaban; 52 almas lo habitaron en la primera década de este siglo, y en el censo de 1982 son 2 vecinos que suman 9 habitantes, los pobladores del lugar, lo que indica que en 135 años el índice demográfico de Eribe se ha reducido abismalmente.

El asentamiento de los caseríos de este lugar se situan en la línea de una circunferencia imaginaria que tuviese por centro un punto próximo al actual depósito de aguas que abastece a este pueblo y a los de Buruaga y Berrícano, salvo un par de ellos que se encuentran algo alejados del resto. Los distintos caseríos se levantan unos aislados de los otros mediante tapias de mampostería que ayudan a delimitar los caminos que comunican unos con otros.

Arabako herririk gehienetan gertatzen den bezala, gaur oraindik zutik dirauten etxeak, aurreko mendeetan izan ziren haietako gutxi-gutxi batzuk besterik ez dira. Azken 15 urtetan geuk ikusi dugu etxe bat desagertzen, beste bi erdi-aurrituak daude eta beste bat itxita. Estatistikek ispilatzen dute hau guztia. Honela, 1846an 21 bizitza eta 75 lagun ziren bertan bizi zirenak; mende honen lehen hamarkadan 52 lagun ziren eta 1982ko zentsuan bi bizitza eta 9 lagun auzoan bizi direnak. Honek esan nahi du, 135 urtetan Eribeko jendekopurua izugarriro urritu dela.

Herri hau eta Buruaga eta Berrikanokoak urez hornitzen dituen ur-deposituaren hondoko puntu batean erdigunea jarririk irudimenezko zirkunferentzia bat egingo bagenu, zirkunferentzia horretxen lerroan kokaturik aurkituko lirateke hemengo baserriak, besteetatik urruntxoago aurkitzen diren pare bat izan ezik. Baserriok isolaturik aurkitzen dira elkarrengandik harlangaitzezko hormen bidez, zeintzuk laguntzen bait dute elkarren arteko bideak mugatzen.

A Eribe se llega desde Gopegui a través de una estrecha carretera que va ascendiendo de forma gradual y por tanto aumentando el alcance de nuestra visión. Poco antes de entrar al pueblo nos acompaña en nuestro recorrido una tapia de mampostería remozada hace cuatro años, que luce próximo al cruce de caminos un escudete. En este cruce de caminos vamos a tomar aquél que va en sentido contrario a las agujas del reloj. El primer edificio que nos encontramos es el catalogado con el nº 6. Se halla abandonado y semirruinoso, perteneció al depositario del Ayuntamiento cigoitiano. El dintel de la puerta de acceso lleva grabada la cruz con base escalonada a ambos lados. Frente al edificio y rayando con el límite del camino, se hallaba la dependencia para el horno de pan. En su parte posterior se anexiona el portegado y pajar.

A continuación se encuentra la iglesia que ocupa el solar más alto del lugar, dominándose desde su torre todo el caserío. Su patrono es San Martín. Es de planta rectangular, con la torre de planta cuadrada a sus pies. El pórtico ocupa la planta baja de la casa cural que se halla anexa al alzado mediodía.

Al Oeste de la iglesia se halla el juego de bolos, semirruinoso, y una pequeña balsa de agua retenida delante de aquél, ofreciendo un descuidado y sórdido aspecto.

Al Oeste del templo y separado de éste por un estrecho paso por donde discurre el camino por el que transitamos, se halla el caserío catalogado con el nº 8. Los diferentes edificios que lo conforman se alinean adquiriendo el conjunto, forma de planta rectangular acusada. Junto al camino se halla cobertizo a una agua en la que se ubica el horno de pan. A continuación, se halla la casa-vivienda que presenta una distribución simétrica de los huecos, seguidamente se halla la cuadra-pajar, con su alzado revocado y encalado, y para terminar, la cabaña, asi mismo de dos plantas. La zona de trabajo se sitúa frente a la cabaña, y el huerto frente a la casa.

Una de las ventanas de su planta baja lleva como dintel parte de otro más largo que se quebró y en el que va grabada una cruz, el año 1820, y que ocupó tal función en una casa que se arruinó.
casa que se arruinó.

Eribera Gopegitik barna joaten da, piskanaka igotzen doan kamino estu batetik; gorago igo alan begientzako ikusmira ere handiagotu egiten da. Herrian sartu baino lehentxoago harlangaitzezko horma bat aurkitzen dugu, gurekin batera herriraino doana; duela lau urte berritua da, zeinak bidegurutzearen gertuan harmarritxo bat ageri bait du. Bidegurutze honetan zerakoa hartuko dugu, erloju-orratzen kontrara doana. Lehenengo aurkitzen dugun eraikina zk.6arekin katalogatutakoa da. Abandonatua dago eta erdiaurritua, udaletxeko gordailuzainarena izan zen. Sarrerako ateko dintelak gurutze bat dauka grabaturik, bi aldeetara mailakatutako euskarri batekin. Etxearen parean eta kaminoari muga eginez, ogi-labearen barrundegia aurkitzen zen. Bere atzekaldean egilehorra eta lastategia dauzka atxikirik.

Segidan eliza dago, herriko punturik altuena berak hartzen duela; bere kanpandorretik etxetalde osoa menperatzen da. S. Martín da bertako zaindaria. Eliza laukizuzena da oinplanoz, bere oinetan oinplano karratuko dorrea duela. Zimitorioak apaiz-etxearen beheko oina hartzen du; apaiz-etxea elizaren Hegoaldeko altxaerari atxikia bait dago.

Elizatik Mendebalera bolatokia dago, erdiaurritua, aurrean ur-baltsa txiki bat duela; oso itxura txarra ematen dio.

Elizatik Mendebalera eta geuk daramagun bideak banandurik, zk. 8arekin katalogatutako baserria aurkitzen da. Berau osatzen duten eraikin ezberdinak elkarren segidan daude, multzoak oinplano laukizuzen markatua egiten duela. Kaminoaren aldamenean isurki bakarreko estalpe bat aurkitzen da, barnean ogi-labea duela; jarraituan bizitz etxea aurkitzen da, baoak simetriaz banaturik ageri dituena; ondoren ikuilu-lastategiak, beren altxaera entokatua eta kareztatua duela; eta azkenik, egilehorra oinplano bikoa hau ere. Lan-lekua egilehorraren aurrean aurkitzen da eta baratza etxe-aurrean.

Behe-oineko leihoetako batek dinteltzat daukana lehenago luzeago izandako beste dintel puskatu baten zatia da; gurutze bat eta 1820ko urtea dauka bertan grabaturik; lur-jotako beste etxe baten dintela izandakoa da.

Casa n.° 8. Alzado principal.
Descarnada fachada ofrece el caserío n.° 9.
Ventana del caserío n.° 8.

8 zk. etxea. Altxaera nagusia.
9 zk. baserriak fatxada gorria eskaintzen du.
8 zk. baserriaren leihoa.

Al atravesar el umbral de la puerta nos encontramos con el portal, a mano izquierda, se halla primeramente un cuarto de accesorios y seguidamente la cocina; en frente, la caja de escalera de ida y vuelta que desemboca en la sala del piso, desde la que se accede a los distintos dormitorios de dicha planta; y a mano derecha, el comedor y otra dependencia con cocina, así como, la puerta de acceso a cuadras.

Al atravesar el angosto paso que producen la iglesia y el caserío anterior, desembocamos en un amplio espacio abierto en el que se sitúan varias fincas y el depósito de agua citado al principio. Al Oeste de este espacio se halla el caserío n.° 9 cuyo edificio principal descuella del resto de edificaciones anexas que se le anexionan por ambos costados y en la parte posterior. Todo el conjunto adquiere gran voluminosidad. Frente a la casa y separada de ésta por un paso de servidumbre, se desarrolla la huerta.

La fachada, esbelta, presente distribución simétrica de huecos, destacando la buena labra de sus recercos ante la mampostería muy ordinaria de que están construidos los distintos alzados. Aquí son dos los dinteles, los del acceso y balcón rasante del piso, los que llevan la tan repetida cruz con base escalonada a ambos costados.

Atalasean barna igaro eta ataurrea aurkitzen dugu. Ezkerretara lehenengo tresna-gela bat aurkitzen da eta segidan sukaldea; parean eskailera-kaxa, joan-etorrikoa, pisuan bukatzen dela; hemendik joaten da pisuko logela ezberdinetara. Eskuitara jan-gela dago, beste gela bat sukaldearekin, eta ikuilurako atea ere bai.

Elizak eta aurreko baserriak elkarren artean eratzen duten kale estua igaro ondoren, zabalune handi batera ateratzen gara; hainbat finka aurkitzen dira hemen eta hasieran aipatutako ur-depositua ere bai. Zabalune honen Mendebalera zk. 9ko baserria aurkitzen da, bere eraikin nagusia beste eraikuntz eranskinen gainetik gailentzen dela; eranskinok bi saihetsetatik eta atzekaldetik dauzka.

Fatxada liraina da, baoak simetriaz banaturik dituela. Atentzioa deitzen du bere azpaduretako labraera ederrak, altxaera ezberdinak eginda dauden harlangaitz arruntarekin konparatuz. Hemen bi dintel dira ohizko gurutzea bi aldeetara mailakatutako euskarriarekin daramateak: sarrerak eta pisuko balkoi sestrakonak.



Casa n.° 4. Estado actual.
Detalle del acceso.
Estado anterior a la restauración.

4 zk. etxea. Oraingo egoera.
Sarreraren zehaztasuna.
Berriztatze aurreko egoera.

El caserío n.º 4, recientemente reformada, ha visto perder su antiguo carácter rural para tomar un carácter de segunda vivienda. Delante del edificio, dispone de un amplio espacio de recreo.

El acceso va enmarcado mediante varios rebajes rectilíneos. En el alzado izquierdo se proyecta la bóveda del horno de pan cuya boca da a dependencia de amasar el pan.

Detrás de este caserío n.º 4, se halla una pequeña y sencilla construcción que acoge a la sala-concejo del lugar.

Avanzando por el camino que deja a mano izquierda la sala concejo y que lleva dirección Norte, nos pone en comunicación con el par de caseríos mencionados al principio, que se encuentran fuera de la imaginaria línea de circunferencia comentada allí.

Zk. 4ko baserria duela gutxi izan da berritua. Lehen zuen baserri-giroa galdu eta bigarren etxe edo aisia-etxe bihurtu da. Etxe-aurrean jolas-toki zabal bat dauka.

Sarrera enmarkatua dago hainbat jate lerrozuzenen bidez. Ezkerreko altxaeran ogi-labearen ganga projektatzen da, bere ahoak ogia oratzeko barrundegira ematen duela.

Zk. 4ko baserri honen atzekaldean eraikuntza txiki-bakun bat aurkitzen da, herriko kontzeju-sala daukana.

Kontzeju-sala ezkerretara uzten duen bidetik aurrera joanez, hasieran aipatutako baserriparea topatzen dugu, lehen aipatzen zen irudimenezko zirkunferentziaren lerrotik kanpora geldi-tzen zirenak alegia.



Estado semirruinoso presenta el tejado del caserío n.° 1.
Recogida construcción muestra la casa n.° 2.
Detalle de escudete.

1 zk. baserriaren teilatuak egoera erdi hondagarria aurkezten du.
2 zk. etxeak eraikintza bildua erakusten du.
Armarritxoaren zehaztasuna.

El primero de ellos, el número 2, es una pequeña construcción de 50 m^2 aproximadamente. Recientemente ha experimentado numerosas reformas tanto interior como exterior, a la vez que se ha construido un pequeño cuerpo anexo a uno de sus costados.

El otro caserío, el n.° 1, semiarruinado, dispone de un edificio vivienda, en cuya parte anterior se halla la vivienda y la cabaña-pajar, perpendicular a aquella, situándose delante la zona de trabajo o era de forma circular y perimetrada por murete de piedra recogido en seco.

Dos son los accesos que posee, y ambos ven acortar su luz a través de las ménsulas que coronan sus jambas. También en ambos se han grabado dos cruces de diferente trazo.

Lehenengoa, zk. 2koa, eraikin txiki bat da, 50 m^2 ingurukoa. Asko ez dela berritualdi ugari ikusia da kanpotik eta barrutik; saihetsetako batean eranskin txiki bat ere eraiki diote.

Beste baserria, zk. 1 ekoa, erdi-arrutia dago. Bizitz eraikin bat dauka, aurreko partean bizitza duena eta hari perpendikularka egilehor-lastategiak. Aurrean, berriz, lan-lekua edo larrain biribila, bueltan-bueltan jasotako harrizko karela, duena.

Bi sarrera dauzka eta biei laburtzen zaie argia, beren zangoak koroatzen dituzten mentsuletan zehar. Berebat gurutze bana, egitura desberdinekoa, grabatu da bietan.

Caserio n.° 3. Aspecto de la singular socarreña en su alzado Poniente.

3 zk. baserria. Mendebaldeko altxaeran korta-lehorpe singularraren ikuspegia.

Retornando de nuevo al núcleo, el primer edificio que encontramos es el catalogado con el n.° 3, después de haber dejado el solar donde hasta hace pocos años se veían los muros de un caserío, que según nos cuentan poseía hogar central en la dependencia correspondiente a la cocina. A la misma altura que el arruinado y dentro del solar posterior del n.° 4, se levantó otro edificio, este desaparecido hace muchos años.

El caserío n.° 3 se halla cerrado y en período de deterioro por no estar habitado en ninguna época del año. Se trata de un edificio que presente distribución simétrica de huecos, luciendo buena labra en sus recercados, así como, en los esquinales. La cubierta de una de las vertientes del tejado se prolonga lateralmente apeada en dos esbeltos pies derechos con base de hormigón y formando socarreña para descansar en los momentos de ocio, al resguardo del sol y de la lluvia.

Berriz ere erdigunera itzuliz, lehenago aurkitzen dugun eraikina zk. 3arekin katalogatutakoa da, oraindik urte gutxi arte baserri baten hormak agerian zituen orube bat utzi ondoren. Esaten digutenez, erdiko sua zuen sukaldean. Aurrituaren altuera berean eta ondorengo orube zk. 4ko aren barruan beste eraikin bat jaso omen zen, erain urte asko desagertu zena.

Zk. 3ko baserria itxita dago eta hondatzen ari da, bertan inor bizi ez delako. Bao-banakera simetrikoa duen etxea da; labratu ederra ageri du bere azpaduretan eta eskantzuetan ere bai. Teilatuko bi isurkietako baten estalkia luzatu egiten da saihets-aldetik, hormigoizko oinarria duten bi zutiko segailetan eskoraturik. Aterpe bat eratzen dute horrela aisia-aldietan atsedeteko, eguzki eta euritatik babesturik.

Aspecto de destacada mansión ofrece la casa n.° 5.

5 zk. etxeak egoitza nabarmenaren ikuspegia eskaintzen du.

Dirigiéndonos, de nuevo, por el camino, hacia el Sur, y viendo el estado ruinoso de la tapia que delimita la propiedad del anterior caserío, llegamos al caserío catalogado con el n.° 5 y que es el último en nuestro recorrido de esta localidad. Es el más pretencioso del lugar, presentándonos una vistosa fachada con impostas de separación de plantas.

Berriro bidetik Hegoaldera joanez, eta aurreko baserriaren sailak mugatzen dituen hormaren egoera aurritsua ikusi ondoren, zk. 5arekin katalogatutako baserrira iristen gara; hauxe da herri honetan ikusiko dugun azkena. Berau da herriko guztietan itxura-handitsuena; fatxada ikusgarria du, solairuak banatzeko inpostak eta guzti.